

/ Nabarmentzekoak

- > Jarduerak Errefuxiatuen Munduko Eguna dela eta (2. or.)
- > Liburu solidarioak salgai, ekainaren 20tik 24ra (3. or.)
- > Getxo Triatloi Taldeak Getxoko lehenengo Triatloi Eskola sortu du (4. or.)



Fetén Fetén eta Musikiaren kontzertua Algortan

(3. or.)

Kontzertua. Ekainaren 22an, ostirala, 21:00etan, Algortako Biotz Alai plazan, Jorge Drexler: "Salvavidas de hielo". Sarrera: 25€.

Balkoitik Balkoira. Ekainaren 22an, ostirala, 22:00etan, Portu Zaharrean, Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik, Balkoitik Balkoira bertso saioa: Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.

**A-
GENDA**

PPk apurtu egin du 2018ko aurrekontuaren inguruan udal gobernuarekin zuen hitzarmena

PPk udal gobernuarekin 2018ko aurrekontuaren inguruan adostuta zuen hitzarmena apurtu du eta ondorioz, Udalak 2017ko aurrekontu luzatuarekin segituko du. Akordioak aurreikusituen zuen hainbat proiektu bultzatzea, hala nola Areetako Geltokia plazaren zaharberritzea, Neguriko geltoki zahararren eskualdatzea edo etorkizuneko Getxoko hirigintzaren definiziorako oinarritzko printzipioen zehaztapena. Udal gobernuak alderdi Popularrarekin sinatutako hitzarmenean jasotako

proiektu eta ekimenen balorazioa gortetzen du beretzat, udal aurrekontuaz gaindi dituen tresnekin haiek bultzatzea erabakitzeke, beti ere 2016-2019 Legegintzaldi Planean agindutakoa kontuan hartuz, legegintzaldi honetako bide-orria finkatzen baitu. Hitzarmena bertan behera geratu ondoren, Imanol Landa Alkateak aurrekontuen proiektua atzera bota zuen, eta beraz pasa den asterako deituta zegoen udalbatzarako deialdia eta bilera indargabe utzi zituen.

2019ko aurrekontu parte-hartzaileen 1. fasea

Ekainaren 15etik uztailaren 15era bitartean 2019ko aurrekontu parte-hartzaileen lehenengo fasea garatuko da. Horretarako Udalak milioi bat euroko diru-saila esleitu du.

Getxotarrek teknika edo ekonomiaren aldetik bideragarriak diren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte; Getxon bizi diren herritar guztien interesa edo onura lehenesten dituztenak, eta arlo hauei lotutakoak, udal-eskumeneak baldin badira: Kultura, Euskara, Berdintasuna, Gazteria, Ingurumena eta Gizarte Zerbitzuak.

Ezin izango dira aurkeztu hurrengo hauek: Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuekin erlazionatutako proposamenak: kaleak atontzea, etxebizitza...; udal-eskumeneak EZ diren proposamenak; udalerraren lurralde-oreka bermatzen EZ duten proposamenak ezta proposamena gauzatzeko ardura pertsona, erakunde zein talde zehatz batek badauka; izan ere, proposamena lehenetsi eta udal aurrekontuen proiektuan txertatuz gero, dagokion udal sailak kudeatu eta bideratuko du.

Prozedura

Proposamenak honako pertsona hauek planteatu ditzakete: Getxon erroldatuta dagoen 16 urtetik gorako edozein herritar; ordenamendu juridikoarekin bat etorrita, nortasun juridikoa duen elkarre, sindikatu, enpresa-elkarre....

Proposamenak udal webgunean erabilgarri dagoen inprimaki digitala betez www.getxo.eus egin daitezke; herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Andra Mari, Gabela eta Fadurako kiroldegietan jarriko diren kutxetan erabilgarri dauden inprimakiak betez eta entregatuz; proposamena(k) (eskaneatutako eranskin gisa) helbide elektronikoa honetara bidalitz: gobernuierkia@getxo.eus eta Algorta, Areeta eta Bidezabal geltokien inguruan jarriko diren postontzietan inprimakia sartuz.

Udal teknikariek aztertuko dute herritarren proposamenen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Baldintza guztiak betetzen dituztenak proiektu bilakatuko dira.

Udalak jakinaraziko du aukeratutako proiektuen behin betiko zerrenda eta, bigarren fasean, Getxoko bizilagunek lehenetsiko dituzte proiektuak. Behin prozesua amaituta, herritarrentzako itzulketa txostena egingo da eta, bertan, hartutako proposamen eta erabakien arrazoiak azalduko dira.

Informazio gehiago: <http://www.getxo.eus/eu/gobierno-abierto>.



Antzezkiunetako protagonistak Koldo Iturbe Kultura zinegotziarekin

Antzerki uda Punta Begoñan

Ekaineko datozen asteburuei begira, Getxoko Punta Begoña Galerietan mikro-antzerki ziklo bati ekingo dio. Hainbat antzeppen izango dira ibilbide zabaleko euskal autore eta antzezleek eskutik; hala nola, Isidoro Fernandez, Olatz Beobide, Aizpea Goenaga, Tessa Andonegi edo Ainhoa Aierbe. Euskaraz eta gaztelaniaz antzeztuko diren 20 minutuko zortzi antzeppen izango dira emanaldi bikoitzean ikusi ahal izango direnak ostiral, larunbata eta igandeean.

Eskaintza kultural hau Getxoko udalak eraikuntza honen 100. urteurrenaren barruan kokatzen da eta Galerien era-

bilpen artistiko eta, batez ere, kulturala bultzatu nahi dute, hau guztia getxotarren eta bizkaitarren eskura jarritz.

Sarrera dohainik da eta Punta Begoña Galerietan, Turismo bulegoan (tel. 94 491 08 00. Helbide elektronikoa: infoturismo@getxo.eus), eta Algortako Kultur Etxean (Villamonte) eskuratu ahal izango dira.

Halaber, programazioak izaera solidarioa izango du, bertan antolatzaileak itsulapiko bat jarriko baitu, Zabalketa GKEk, Udalaren laguntzaz, aurrera daraman *SolidaridUp* ekimenarekin kolaboratzeko.

Antzerki egitarua (agenda ikusi).

9 beka udako kirol-campus baterako, Italian

Uretako kirolak sustatzeko Europako Wave on Wave programak (Getxo partaidea da) deialdi bat ireki du abuztuaren 20tik 27ra Italiako Pesaro hirian egingo den nazioarteko campusean parte hartzeko. Deialdia Getxoko 12 eta 15 urte arteko kirolari gazteentzat da, eta guztira 9 beka eskainiko dira, bidaia-gastuak, egonaldia eta mantenua ordaintzeko. Beka horiek eskuratu ahal izateko, Getxon bizitzeaz gain, igeri egiten jakin behar da eta ingeleseko oinarritzko maila izan behar da.

Abuztuan Pesaron antolatuko den campusa Europar Batasunak finantzaturiko Erasmus+Sport Wave on Wave programan sartzen da, eta Getxoz gain, Pesaro, Varna (Bulgaria), Nan-

cy (Frantzia) eta Adel (Eslovenia) hiriek parte hartzen dute. Iaz hasi ziren jarduerak egiten, eta helburuen artean uretako kirolak sustatzea eta tokiko komunitate nautikoa sortzea daude; azken horretan, ikastetxeak, kirol-klubak eta itsasoarekin loturiko instituzioak sartzen dira. Iazko udan, Getxon egin zen aurreikusitako lehen campusa.

Informazioa eta hautagaitza aurkezteko inprimakia: wowgetxo@gmail.com posta elektronikoa, ekainaren 29ra arte. Era berean, ekainaren 25ean, astelehenean, 19:30ean, familia interesatuei informazioa emateko saioa egingo da Pakea Getxo Bela Eskolako pabiloian, Kirol-Portuan.





EKAINAK 15 OSTIRALA

Antzerki laburra Punta Begoñan 18:00etan eta 20:00etan, "Ganba Alaia", Isidoro Fernández eta Olatz Beobide protagonistekin. 19:00etan eta 21:00etan, Nati Ortiz de Záratek eta Carmen Pardok "Ojos que no ven" antzeztuko dute. Doako sarrera gonbidapenarekin (Punta Begoña Galerietan, Ereagako Turismo Bulegoan eta Algortako Kultur Etxean -Villamonten- har daiteke).

XXV. Getxotar Dantza Eguna. Algortako Biotz Alai plazan, 20:00etan, Dantzarteko ikasleen koreografiak.

EKAINAK 16 LARUNBATA

Antzerki laburra Punta Begoñan 18:00etan eta 20:00etan, Belén Cruzek eta Amaia Lizarralde "Nomofobiak" antzeztuko dute. 19:00etan eta 21:00etan, Lola Markaidak eta Koldo Olabarrik "El último Habsburgo" eskeiniko dute. Doako sarrera gonbidapenarekin (Punta Begoña Galerietan, Ereagako Turismo Bulegoan eta Algortako Kultur Etxean -Villamonten- har daiteke).

XXV. Getxotar Dantza Eguna. Algortako Biotz Alai plazan, Carmen Veraren Romoko dantza estudio koreografiak, 18:30ean, eta Ana Lararen dantza estudioak, 20:30ean.

Solaserako kafea. "Cuerpo y descolonización. Gordofobia y otros sistemas de control", Lucrecia Massonekin, 18:00etan, Algortako Kultur Etxean. Izenematea whatsapp bidez, tel.: 655 603 809.

EKAINAK 17 IGANDEA

Antzerki laburra Punta Begoñan 18:00etan eta 20:00etan, "El último Habsburgo". 19:00etan eta 21:00etan "Ganba Alaia". Doako sarrera gonbidapenarekin (Punta Begoña Galerietan, Ereagako Turismo Bulegoan eta Algortako Kultur Etxean -Villamonten- har daiteke).

XXV. Getxotar Dantza Eguna. Algortako Biotz Alai plazan, 12:30ean, Areetako Flamenko Eskolako ikasleen koreografiak.

XI. Getxotar Abesbatzen Eguna. Algortako Biotz Alai plazan, 18:00etan, 11 abesbatzen emanaldia.

EKAINAK 18 ASTELEHENA

Odol-ateratzeak. Bidezabalgo osasun zentroan, 16:30etik 21:00etara.

Erakusketa. XIII. Eskuko Liburu Azoka Solidarioa dela medio, Algortako Kultur Etxean, "Mejorando la educación infantil en la comunidad Huasquicha (Pancán, Perú)", Ayuda Más GKEren eskutik. Hilaren 24ra arte.

Erakusketa. Algortako Torrean Areatoan, adimen-desgaitasuna duten pertsonen aldeko GAUDE elkartereko kideen lanak. Hilaren 24ra arte.

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean, Kultur Etxeak Villamonten antolatutako tailerretako ikasleak: Argazkigintza - 1 maila. Hilaren 22ra arte.

Erakusketa. Romo Kultur Etxean, Kultur Etxeak antolatutako tailerretako ikasleak: Arte Aplikatuak. Hilaren 22ra arte.

EKAINAK 19 ASTEARTEA

Odol-ateratzea. Algortako Erredentorearen aparkalekuan, 16:30etik 21:00etara.

EKAINAK 20 ASTEAZKENA

XIII. Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa. Algortako Kultur Etxean, udal liburutegiari dohaintzan emandako bigarren eskuko liburuen salmenta. Bildutako dirua Bidali GKEk Zisjordanian bultzatutako proiektu solidario bati emango zaio. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00. Sarrera dohanik.

Versadas olerki kluba. 2017/18 denboraldia amaiera. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, olerki zaleen klubaren saioa. Oraingo honetan, Elena Medel. Sarrera dohanik.

EKAINAK 21 OSTEAGUNA

Odol-ateratzea. Areetako Geltokia plazan, goizez eta arratsalde.

XIII. Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa. Algortako Kultur Etxean. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.

Ipuinaren ordua. 2017/18 denboraldi amaiera. Romo Kultur Etxeko bebetekan, 18:00etan, Ines Bengoaren eskutik, "Margo-ipuina". Euskaraz. 4-8 urte. Sarrera dohanik.

Literatura topaketa. Romo Kultur Etxean, 19:45ean, Kultur Etxearen Sortze-idazketa tailerraren eskutik, solasaldia "Las madres secretas" eleberriarren egile Mónica Crespoekin. Sarrera dohanik.

Kontzertua. Algortako Biotz Alai plazan, 20:00etan, Fetén Fetén eta Andrés Isasi Musikalia Banda. Sarrera: 5€.

EKAINAK 22 OSTIRALA

Antzerki laburra Punta Begoñan 18:00etan eta 20:00etan, "Ganba alaia". 19:00etan eta 21:00etan "Ser o influencer". Doako sarrera gonbidapenarekin (Punta Begoña Galerietan, Ereagako Turismo Bulegoan eta Algortako Kultur Etxean -Villamonten- har daiteke).

XIII. Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa. Algortako Kultur Etxean. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.

Kontzertua. Algortako Biotz Alai plazan, 21:00etan, Jorge Drexler: "Salvidados de hielo". Sarrera: 25€.

Balkoitiik Balkoira. Portu Zaharrean, 22:00etan, Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik, Balkoitiik Balkoira bertso saioa: Maialen Lujanbiko eta Amets Arzallus. Sarrera dohanik.

EKAINAK 23 LARUNBATA

Antzerki laburra Punta Begoñan 18:00etan eta 20:00etan, "Ser o influencer". 19:00etan eta 21:00etan "Pisu ez-partekatua". Doako sarrera gonbidapenarekin (Punta Begoña Galerietan, Ereagako Turismo Bulegoan eta Algortako Kultur Etxean -Villamonten- har daiteke).

XIII. Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa. Algortako Kultur Etxean. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.

Kale Antzerkia. "Kale antzerkia bultzatuz" jaialdia. Zubilletako zelaian, 18:00etan, "Tiki Ttaka", Erre Produzkoak taldearen eskutik. Euskaraz. Adin guztientzat. Sarrera dohanik.

EKAINAK 24 IGANDEA

Antzerki laburra Punta Begoñan 18:00etan eta 20:00etan, "Ser o influencer". 19:00etan eta 21:00etan "Me too". Doako sarrera gonbidapenarekin (Punta Begoña Galerietan, Ereagako Turismo Bulegoan eta Algortako Kultur Etxean -Villamonten- har daiteke).

XIII. Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa. Algortako Kultur Etxean. 11:00-14:00.

Jarduerak Errefuxiatuen Munduko Eguna dela eta

Gaur egungo errefuxiatuak bihar-ko hiritarrak izateko bidea presatzea, elkartasuna eta kohesio soziala adiskidetzen dituzten politiken bitartez da Udalak, hainbat entitatekin laguntzarekin, antolatutako egitarauaren helburua, ekainaren 20an antolatzen den Errefuxiatuen Munduko Eguna dela eta.

Egitaraua larunbatean, ekainaren 16an, 12:00etan, hasiko da *Samba, un nombre borrado* izeneko dokumentalaren proiektzioa eta ondorengo solasaldiarekin, Romo Kultur Etxean, RKE, Mahmoud Traoré protagonistaren partaidetzarekin. Hurrengo egunean,



igandean, ekainak 17, kaleko antzerkia izango da Areetako Geltokia plazan, *Munduko arrozak* jaiaren ospakizunarekin batera. Alboan entitateak eta Euri Artean taldeak *Historias detrás de la valla: Passport* ikuskizuna eskainiko dute 13:00etan. Asteartean, ekainaren 19an, 19:00etan, toki

berean, Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak Mugak Zabalduz Italiako Calabriara joango den karabana aurkeztuko du. Gainera, Azebarri taldearen egoitzan sukaldaritza tailerra eta kultura arteko afaria izango dira, ostiralean, ekainak 22, 18:30ean, Bizilagunak, Mila Zapora ekimenaren barruan, eta ekainaren 22tik 24ra Save the Children elkarteak *Giza liburutegia* kanpaina ibiltaria aurkeztuko du. Azken ekitaldia ekainaren 24an, igandean, 19:00etan, izango da, Caminamos para Crecer-CEAR Euskadi erakundearen *Alas rotas* izenburuko antzezlaren estreinaldia RKE.

Laguntza bi proiektu turistikoentzat

Gobernu Batzordeak 104.200€tan esleitu du helmugan kalitate eta lehiakortasun turistikoa hobetzen dituzten enpresa txiki eta ertainen proiektuei laguntzeko zerbitzu teknikoak. Zerbitzua 2018-2019 urteetan eskainiko da SICTED-Xe-deetako Turismo Kalitatezko Osoko Sistema eta IKTen Jar-

dunbide Egokiak izeneko programetan ezartzeko. Lehenengoan 32 enpresa parte hartzen ari dira eta, bigarrenean, 27. Bi programa hauek euren enpresetan ezarri nahi dutenek helbide hauetara bidali behar dute posta elektronikoki bat: turismokalitatea@getxo.eus edo calidadturismo@getxo.eus



Belaunaldien arteko topaketa Algortan

Aiboa Eguneko Zentroko 20 pertsona nagusik eta San Inazio ikastetxe publikoko 30 ikasle eta irakasleek parte hartu dute aste honetan belaunaldien arteko topaketa batean, Udalak sustatuta, Irgurkoren (IMQ Taldearen Zerbitzu soziosanitarioak) laguntzarekin, *Menpekoen zaintzaileak laguntzeko Zerbitzuak* izeneko programaren barruan. Geltokia plazan ospatutako sentsibilizazio jardunaldi horretan pertsona nagusiek egindako argazkien erakusketa bat ikusi ahal izan zen, eta horiek eta ikasleek oroimen jardueratan, tailerretan eta abesbatzen parte hartu ahal izan zuten.



Igor Quintela XVI. Eduardo Chillida Matematika Olinpiadan saritu dute

Igor Quintela Atxutegi, Artaza-Romoko DBHko bigarren mailako ikaslea, lehenengoa geratu da XVI. Eduardo Chillida Matematika Olinpiadan. Horretan, Euskadiko 104 ikastetxetako 3.000 neska-mutil inguruk hartu dute parte. Igorrek Ingalaterran hiru astez ingeles ikastaroa egiteko beka jaso du, beste sari batzuen artean. Halere, bi ikaskidekin, Estatuko olinpiadan parte hartzeko eskubidea irabazi du, Euskadiren ordezkari izateko (Valentzia, ekainak 21-25).

Kosmopolis tailerra. Kosmopolis, Etorrinen lanbide-gaitasunak aitortzeko elkarteak tailer bat antolatu du *Homologazioa-baliokidetasuna, lanposturako beharrezko pausoa* gaiari buruz. Hitzordua ostiralean, ekainaren 15ean, izango da, 18:00etan hasita, Villamonteko Kultur Areatoan. Sarrera irekia izango da.

Bi lursail salduko dira Negurin, etxebizitza librea egiteko

Udalak 11.1 Egikaritze Unitateko 1. eta 4. lursailak ipini ditu salgai, Neguri etorbidea eta San Ignacio kalearen artean kokatuta daudenak, hirigintza-plangintzan jasotzen denez dentsitate txikiko (eraikuntzaren gehieneko altuera 3 solairukoa da) etxebizitza librea eraikitzeko direnak.

1 partzelak, guztira, 1.692m²-ko azalera dauka eta 4 zenbakidunak 676,93m² (bi lursailen eraikigarritasuna: eraikitako 593m²).

Gobernu Batzordeak onetsi du dagoeneko lehiaketa -prozedura irekiaren bidez- eraunduko duten baldintza teknikoaren plegua, ondoren salmenta-eragiketa gauzatzeko. Lizitazioaren prezioa 1.040.777,03€ (BEZa kanpo) da, eta horregatik, lursail bakoitzagatik aurkeztu diren eskaintzek aipatutako kopuru bera edo hori baino handiagoa izan beharko dute.

Lursaila erosteko proposamenak posta ziurtatuaren bidez edo Ondare eta Etxebizitza Sailaren udal bulegoetan (Los Fueros kalea 6, 1.) aurkeztu ahal izango dira, 08:00etatik 14:00etara, astegunetan, abuztuaren 6ra arte.

Argibide gehiago: <http://www.getxo.eus/eu/vivienda/noticias/32>

Nagusien Etxearen itxialdia amaitu egin da

Ibar Nagusien Etxea elkarteak amaitutzat eman du Lope de Vega kaleko zentroan egiten ari zen itxialdia, horren itxieraren eta eraikina eraistearren kontra protestatzeko egiten ari zena. "Kontuan hartu dugu udal arduradunek esan dutela jarduera gure etxean egiten jarrai dezakegula, udal batzak kontrakoa adosten ez duen bitartean. Horregatik, itxialdia bertan behera uztea erabaki da", agertu du agiri batean elkarteak. Hala ere, urteko batzarra egin duen elkarteak bere aldarrikapenak egiten segituko du.



- Errentan ematen dut lonja bat Gobela kaleko 26ean (Areetan). Egokituta. Tel.: 94 602 07 42.

- Lagundu zure sema-alaba ikasturte amaierako azterketak gaintzen. Estresaren kontrola, ikasketa-teknikak... Romo. Tel.: 687 00 06 50(Puri).

- Mutil eskarmentuduna lan bila dabil adinekoak zaintzeko, orduka. Tel.: 632 48 70 40.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jauraritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111



Izenematea Udako Berbalagunarako

Datorren ekainaren 20an, asetzkean, amaituko da Udako Berbalaguna ekimeneko taldeetan parte hartzeko izena emateko epea. Egizu elkarteak antolatuta, helburua taldeak osatzea izango da, astean behin elkartzeko eta ordubetez euskaraz mintzatzeko, hizkuntzaren erabilpena sustatze aldera.

Parte hartzea doakoa izango da eta txikiak izango diren taldeak ekainaren azken astean hasiko dira biltzen, ondoren uztailean eta irailean elkartzen jarraitzeko konpromisoarekin. Komunikatzeko gutxieneko maila besterik ez da behar. Izenematea eta informazioa: www.egizu.eus

GAUDEren erakusketa

Buru minusbalotasuna duten pertsonen aldeko GAUDE elkartearen Adierazpen Plastikoko tailerreko ikasleen erakusketa Algortako Torre aretoan ikusi ahal izango da ekainaren 18tik 24ra. Guztira 20 lagunek 40 koadro erakutsiko dituzte. Lanek pertsona bakoitzaren artea erakutsi ezezik, esfortzua, dedikazioa eta ikasturtean lan egindako ordu kopuru askoren ilusioa ere igortzen dituzte. Gaiak ugariak dira, pintore ospetsuen kopiak zein gai desberdineko marrazki original eta koloredunak.

Ostegunean, hilak 21, 20:00etan

Fetén Fetén eta Musikaliaren kontzertua Algortan

Fetén Fetén taldea eta Andrés Isasi Musikalia Bandak kontzertu bat eskainiko dute datorren ostegunean, ekainak 21, 20:00etan, Algortako Biotz Alai abesbatzaren plazan. Fetén Fetén taldea Jorge Arribas eta Diego Galaz musikariek osatzen dute. 2009. urtean abentura honi hasiera eman zioten, beren bizitzaren soinu banda era dibertigarrian jartze aldea. Tradiziozko eta gaur eguneko musika konbinatuz, *fox-trot*, *vals*, *cho-*

tis eta *seguidillas* erritmoekin, Iberiar penintsula, Italia, Japon edo Argentinara bidaiatuko gara.

Taldea jira bat egiten ibili da Mexikotik eta Fito & Fitipaldis taldearekin ere jo du. Hilabete honetan laugarren diskoaren grabaketari ekin diote *Melodias de Ultramar* izenpean.

Bestalde, Musikalia taldea urtarrilean hasi zen kontzertua prestatzen. Erronka handienetako bat izan da Fetén Fetén taldearen abestiak ego-

kitzea, Nacho Cantalejoren zuzendaritzapean. Izan ere, zaila izaten da horrelako talde bat musika banda batekin konbinatzea eta martxoan hasi ziren prestatutako partitura batzuen entseguak egiten.

Kontzertuaren prezioa 5€koa izango da. Kontzertuak hainbat atal izango ditu, non Musikaliako bandak eta Fetén Fetén taldeak bakarka arituko diren eta beste atal batzuetan ordea, elkarrekin.

11. Getxoko Abesbatzen Eguna

Ekainaren 17an, igandearrekin, 11. Getxoko Abesbatzen Eguna ospatuko da. Herriko abesbatzei omenaldia egiteko ekitaldia da, ahots-musika ere bultzatu nahi duena. Algortako Biotz Alai plazan egingo da saioa, 18:00etatik aurrera. Bertan arituko dira honako talde hauek: Kimetz, Alai, Erromoko Kantariak, Andrés Isasi, Zozoak, Iru-tasun, Biotz Alai, Areetxo, Itxartu, Eskuz-Esku eta Ondarreta. Guztira, 350 abeslarik euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko abesti eta moldaketak interpretatuko dituzte: besteak beste, Mikel Laboa, Burt Bacharach, Aita Donostia, Abba, Iparragirre eta Xabier Leterenak; zenbait pieza herrikoierak ere kantatuko dute.



XXV. Getxoko Dantza Eguna

Ekainaren 15etik 17ra XXV. Getxoko Dantza Eguna ospatuko da Biotz Alai plazan, eta bertoko lau dantza eskolako taldek parte hartuko dute. Hainbat koreografia dantzatuko dituzte Biotz Alai plazan eta aurtengo ekitaldian, adin guztietako 200 bat ikasleek parte hartuko dute.

Hilaren 15ean, ostirala, Dantzarte akademiako ikasleak ariko dira 20:00etatik aurrera. Larunbatean, hilak 16, Romoko Carmen Veraren Dantza Estudioko dantzarien txanda izango da, 18:30etik aurrera, eta ondoren, 20:30ean, Ana Lararen Dantza Estudiokoak jardungo dira. Azkenik, igandean, hilak 17, Las Arenas Flamenko Eskolako ikasleen koreografieez itxiko da zikloa, 12:30ean.



Bildutako dirua Ayuda Más GKeri emango zaio

Liburu solidarioak salgai, ekainaren 20tik 24ra

Ekainaren 20tik 24ra Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa egingo da, hamairugarren aldiz, Algortako Kultur Etxean, udal Liburutegi Zerbitzuak antolatuta udaleko Garapenerako Lankidetzaren arloarekin elkarlanean.

Salgai jarriko diren 21.000 liburuak partikularrek liburutegiei emandakoak dira; eta salmenta prezioak sinbolikoak izango dira: liburuak euro bana balioko dute. Halaber, azokaren azken egunean, igandean, deskontuak egingo dira liburu-sortak erostean. 2017an, 12.195 liburu saldu ziren bertan eta, guztira, 11.526€ bildu ziren Biladi-Palestina GKerentzat.

Aurten, bildutako dirua Ayuda Más GKeri emango zaio, Huasquichako (Jauja, Peru) nekazari-komunitatean haur hezkuntzako proiektu bat bultzatzeko.

Horrez gainera, azoka dela eta, ekainaren 18tik 24ra, Villamonteko Kultur Etxeak *Mejorando la educación infantil en la comunidad Huasquicha* izenburuko erakusketa antolatuko du aipatutako GKE; erakunde horrek Perun egindako lana erakutsiko da erakusketan, zenbait panelen bitartez.

Azokaren ordutegia: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara (igandean goizez irekiko da soilik).



“Amor, comida, dinero”

Vicente Domínguez Solerak aurkeztu berri du, Algortako udal liburutegian, *Amor, comida, dinero*. Liburu honek, egilearen aburuz, “emozioak ulertzen eta aldatzen lagunduko du, hala nola, pertsonen elikadura eta ekonomia. Ez du axola norbanakoaren fedea eta esperientziak, gainditu dezakezu nahi duzun bizitza sortzeko”.



Ekainaren hondarrean campus bat antolatuko du kirol hau txikiaren artean ezagutzera emateko Getxo Triatloi Taldeak Getxoko lehenengo Triatloi Eskola sortu du

Getxo Triatloi Taldeak udalerriko lehenengo Triatloi Eskola jarri du martxan, Getxo Kirolaren laguntzarekin. Eskola horretako ibilbideari hasiera emateko aurreneko jardura campus bat izango da, taldeak antolatu eta zuzenduko duena, txikiaren kirol modalitate hau hurbilagozik ezagutu dezaten.

Getxo Triatloi Taldea irabazi asmorik gabeko xedea duen kirol elkarte da, 1990ko uztailan New Balance Cima-Club izenarekin sortu zena. 1993.urtean, zuzendaritza batzorde berriak izena aldatzeko erabakia hartu zuen eta horren ordez egun

duena ipini zion; estatutu eta jardura berberekin -triatloi, duatloi eta atletismoarekin- jarraitzea ere erabaki zuen. Taldeko arduradunen esanetan, Getxon triatloi eta duatloien klub erreferentea izan nahi du, udalerrian edozein mailako kirolarien garapena babestuko duen komunitatea sortzea duela helburu; adin eta maila guztietako kirol anitzetako atleten komunitatea, hain zuzen ere.

Campusa ekainaren 25etik 29ra

Eskola sortu berriari antolatuko duten lehenengo campusa ekaineko azken astean

egino da, 25etik 29ra, Fudurako kiroldegian eta Ereagako hondartzan; ordutegia, honako hau: 09:00etatik 13:00etara. Campusa adingabekoei dago zuzenduta, 8 eta 15 urte bitarteko gaztetxoei, eta euskaraz zein gaztelaniaz emango da, Getxo Triatloi Taldearen kirol zuzendaria den Milos Mallolen gainbegirada pean. Campusari jarraipena emateko, hileroko ekitaldiak antolatuzeko asmoa daukate, hainbat gai landu eta, ondorioz, gazte triatletak prestatzeko.

Argibide gehiago jaso eta izen-emateak egiteko: www.getxotri.org.

J 80ek belak hedatuko dituzte Espainiako Kopari begira

J 80 erako belaontzien bertako flotak sasoiaren dagoen aztertuko du larunbat honetan, hilak 16, XXXIII. Bizkaiko Crucero Txapelketa-2. Mercedes Benz Aguinaga Kopan, Abrako uretan 13:00etatik aurrera. Aurten txapelketak berezitasun bat dauka: lehenago J 80 modalitatean jokatu da eta ondoren, bi aste beranduago, Crucero eta Regata klaseetan.

Izan ere, aurtengoa oso urte berezia da Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Club-entzat, Kantauriko proba garrantzitsuenetakoa den hori antolatzen duen erakundea. Bizkaiko



Txapelketa Espainiako J 80 Kopa baino astebete lehenago jokatu da; hori ere Abran egingo da, Areetako elkarteak antolatuta.

Horregatik, larunbat honetan, Bizkaiko flotako ontziek prestatzeko aukera bikaina dute, ondoren indarrak neurtzeko estatuko espezialista onekin, tartean munduko txapeldunak direla. José Azquetaren *Biobizz* izan zen iazko txapelduna. Berarekin batera parte hartuko dutenak dira Ramón Zubiagaren *Mandovi*, Gonzalo Chávarriren *Fin Gol Fin*, Alfonso Churrucaren *Alpega*, Ibon Basañezen *Jet Set*, José Luis Ribeden *Pilgrim*, Christian Jaureguiren *Freus*, Ander Etxaberen *Kresala*, Pablo Gomezaren *Obelix* eta Ignacio Real de Asúaren *Montarto*.

Udako denboraldia Fudurako igerilekuan

Ostiral honetatik, ekainaren 15etik irailaren 16ra bitartean, Fudurako kanpoko igerilekuek beren ohiko ordutegia aldatuko dute eta udakoa izango dute. Hala, igerileku olinpikoa astelehenean ostiralera erabili ahal izango da 7:30etik 21:30era (asteburuetan, 8:30ean irekiko da); eta gainerako kanpoko espazioak —berdeguneak eta haurrentzako igerilekuak—, berriz, 10:00etatik 21:30era irekiko dira.

Igerilekuen erabilzailentzat kafeategia irekita izango da astelehenean ostiralera, 12:00etatik 20:00etara (asteburuetan eta jai-egunetan, 11:00etatik 20:30era).



AEaren atzetik belak zabalik itsasaldia arrakasta handiz bukatu da

Misioa eginda. Iñaki Elorriaga, 71 urteko AEAK jotako getxotarra, Unai Basurko itsasgizona eta Kepa Junkera musikaria *AEaren atzetik belak zabalik: Finisterre lurmuturra erronka* itsasaldia bukatu dute. *Pottoka* belaontzia, AEAK (Alboko Esklerosi Amiotrofikoa) jotako pertsonen egoera ikustaraztea eta ADELA Euskal Herria federazioaren mesederako diru-bilketa egitea xedea zuena, Bilbotik irten zen maiatzaren 26an eta, Kantabriaren, Asturiaren eta Galizian lehorreratu ondoren, Getxora heldu zen joan den astelehenean, ekainak 11, bere ibilbidean Donostian bukatu baino lehenago.

Saskibaloia: Kirol bilkura HTZan

Gorren U21entzako Saskibaloien Selekzioak, Poloniako Lublinen Europako txapelduna izatea lortu zuenak, kirol bilkura bat egingo du asteburuan (ekainaren 16 eta 17an), Fudurako HTZn. Bilkura horrek uztailaren 5etik 15era Washingtonen izango den Munduko Txapelketarako prestatzeko balio izango du. Selektzio kideetako bat Ibon Martínez izango da, udalerriko auzokidea eta Getxo Saskibaloia taldeko jokalaria. Asteburuan zehar, selektzioak bi adiskidantza partida jokatu ditu Getxoko Junior eta Senior taldeen aurka, larunbatean, 18:00etan, Gobelan, eta igandean, 12:00etan, Faturan.

4. Getxo Futbola Txapelketa

Getxo Kirol Elkarteak, harrobiaren bitartez, Getxo Futbola Futbol Eskolaren bitartez, alegia, 3. Getxo Futbola Txapelketa egingo du datorren larunbatean, ekainak 16. Torneoan 12 taldek jokatu dute, kimuen mailan; baina berezitasun batekin, futbol-11 modalitatean jokatu dute. Berritasun bezala, aurten Euskal Herritik kanpoko taldeak ere izango dira, eta Donibane Lohizuneko beste bat, Arin Luzien. 12 kimu taldeak, Logroño, Burgos, Castro, Santander, Vitoria-Gasteiz, Donostia, Bizkaia eta Donibane Lohizunekoak dira. Txapelketa Faturan jokatu da, Bolue 1-2-3 zelaietan.

Skateko Basque Pool Series Txapelketa

Kanterako skatepark-ean, Skate Basque Pool Series txapelketa egingo da larunbatean, ekainaren 16an, 17:00etatik aurrera. La Kantera Skate Eskolak Getxo Kirolak-ekin elkarlanean eta Euskalteilen babesarekin antolatutako txapelketaren hamargarren edizioa izango da, eta oraingoan 50 skater baino gehiagok hartuko dute parte Txikien, Sub16, Open eta Nesken Kategorian. Guztira, 1.500€ banatuko dira saritan, eta gizonen probako zein emakumezkoen irabazleek ekainaren 23an Arrigunagako pool-ean izango den La Kantera Invitational txapelketa profesionalen parte hartzeko gonbidapen-plaza eskuratu dute.

Hondartza boleibola: Euskadiko 17 urtez azpiko txapeldunordeak

Kattalin García eta Naia Asua, Getxo Aixerrota Boleibol Kirol taldekoak, Euskadiko hondartzako boleboleko txapeldunorde geratu dira, 17 urtez azpikotan. Sestaon jokatu dute txapelketan 32 bikotek hartu zuten parte. Emaitza bikainak getxotarrantzat, hortaz, denboraldi honetan Kattalin Garcia lortutako laugarren domina baita, zilarrezkoa lortzeaz gain, urrezkoa izan baitzuen 19 urtez azpikoan, 21 urtez azpikoan eta absolutuan, Maider Santxorekin.

EUSKARA

Getxon


Getxoko Udal
Euskara Zerbitzua

A finales de noviembre se desarrollará EUSKARALDIA que pretende incidir en la práctica social de las personas que hablan o comprenden el euskera.

Según los datos derivados del censo 2016, Getxo presenta un escenario social adecuado para desarrollar un EUSKARALDIA positivo.

Azaroaren amaieran izango den EUSKARALDIAk euskaraz aritzeko edo ulertzeko gai diren herritarren hizkuntza ohituretan eragin nahi du.

EUSTATEko datuen irakurketaren arabera, Getxok badu gutxieneko sozial egokia EUSKARALDIAk arrakasta izateko.



HIZKUNTZA GAITASUNA 2016 COMPETENCIA LINGÜÍSTICA 2016

	Biztanleak Habitantes	Elebidunak Bilingües	Elebidun hartzaileak Bilingües pasivos	Elebakarrak Monolingües
Getxo	75.862	25.246 %33,28	17.499 %23,07	33.117 %43,65

Testu honetan “Elebidunak” deitzen zaie hizkuntza ofizial biak hitz egiteko gai direnei. “Elebidun hartzaileak” euskaraz ulertu bai, baina erabiltzeko gai ez direnei.

En este texto se denomina “Bilingües” a las personas que son activas en los dos idiomas oficiales. “Bilingües pasivos/as” las que comprendiendo el euskera no lo hablan.


HIZKUNTZA GAITASUNA AUZOKA 2016 COMPETENCIA LINGÜÍSTICA POR BARRIOS 2016

	Biztanleak Habitantes	Elebidunak Bilingües	Elebidun hartzaileak Bilingües pasivos	Guztira Total	Ehunekoa Porcentaje
Algorta	32.846	12.038	7.518	19.556	%59
Andra Mari	10.053	4.045	2.352	6.397	%63
Areeta - Romo	25.689	7.268	5.790	13.058	%50
Neguri	7.274	1.895	1.839	3.734	%51

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak 2016ko errolda datuetatik egindako estrapolazioa. 2 urtetik gorako herritarrek.

Extrapolación realizada por el Servicio Municipal de Euskera según los datos del censo de 2016. Mayores de 2 años.


HIZKUNTZA GAITASUNAREN BILAKAERA EVOLUCIÓN DE LA COMPETENCIA LINGÜÍSTICA



La competencia lingüística de la población de Getxo ha ido variando conforme pasa el tiempo.

Getxoztarren hizkuntza gaitasuna aldatuz joan da denborarekin.

EUSKARAREN EZAGUTZA GETXON ADINAREN ARABERA EVOLUCIÓN DEL CONOCIMIENTO EN GETXO SEGÚN EDADES




Euskararen ezagutzan izandako gorakada adin tarte guztietan eman izan da, baina esanguratsuak dira ume eta gazteen datuak. Gaur egun ume eta gazteen gehiengo handia euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai da.

Los datos de conocimiento del euskera han aumentado en todas las franjas de edad, pero son especialmente significativos los datos de niños/as y jóvenes. Hoy en día la gran mayoría de niños/as y jóvenes habla o entiende el euskera.

EUSKARA HEZKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOAN GETXON 2018-19
EL EUSKERA EN LA ENSEÑANZA NO UNIVERSITARIA EN GETXO 2018-19

D Eredua - Modelo ●
 B Eredua - Modelo ●
 A Eredua - Modelo ●



Iturria: Getxoko Udala. Hezkuntza Arloa
 Fuente: Ayuntamiento de Getxo. Departamento de Educación

Adinkako datuetan, argi ikusten da hezkuntza sistemaren garrantzia hizkuntzaren transmisioan.

Los datos por edad muestran la importancia del sistema educativo en la transmisión del euskera.

Euskara plana 2018-22:

Baina euskararen berreskurapena ezin da eskolaren esku bakarrik geratu; kultur hizkuntza izaten ere lagundu behar zaio, etxeko euskararen transmisioan lan egin behar da, helduen euskalduntzean, kaleko erabileran, administrazioaren erabileran...

Guztiok lagundu ahal dugu horretan; besteak beste euskara planaren diseinuan parte hartu ahal duzu.

Zelan? sartu
www.getxo.eus/eu/euskara/servicios/plan-uso-euskera

11 atal edo sailetan banatuta agertzen dira proposatzen diren helburuak eta eurak garatzeko neurriak. Helburuak eta neurriak aldatzeko, hobetzeko edo berriak txertatzeko proposamenak egin ahal dituzu alboan topatuko duzun inprimakia betez.

Zure ekarpenek erantzuna izango dute.



Plan de euskera 2018-22:

Pero la recuperación del euskera en Getxo no es una labor exclusiva del sistema escolar; se debe avanzar en distintos ámbitos: la transmisión interfamiliar, euskaldunización de personas adultas, uso social, uso administrativo, como idioma cultural, etc.

Todos/as podemos colaborar entre otras cosas en el diseño del plan de euskera de Getxo 2018-2022.

¿Cómo? entra en
www.getxo.eus/es/euskara/servicios/plan-uso-euskera

Encontrarás propuestas y medidas englobadas en 11 ámbitos de actuación. Puedes proponer modificaciones, cambios, mejoras de medidas y objetivos.

Tus aportaciones tendrán respuesta.

Eskerrik asko!



Getxo
bizi ezazu